

OLAK¹



Olak izan ziran denbora batean euskal-erriko lenendiko aberastasuna eta baieratueben bere biritegileren ondasuna.

Neure jakintza laburrak lankaitar ekintza eta menasta gauzetan, eta beste alde batetik euskal jokoaren beakarriak ez deuste baimenduten zeamenak jakindero esaten ez da ona zan edo ez bazan burdiña urtu eta lanegintzako gure errian zan astura; ez dot bada auspu, tobera eta beste enparagorik aitatuko esanzarako biarturo biardanean baño, baña esango dodana izango da aldayan euskera garbienean, ezagutu erainda zer zan azgarrikoa, biar egiteko modua eta nekezalearen bardindea.

Erakutsi gure berbetaren naskea, bere ugaritasuna eta gorde bizirik erriko gauzaren oroitza izan biar da aurbakideaden gogibenduba: gauza orretarra zuzentzena neure itzkribatze edergatu au.

Sartueratzat ori esanda asinaitean.

Izate beti arretzatubak aukeratu ebanean gure erri au, ikusteko polita eta udarako naikaria bada, bere giro epelagaitik, ez ona landagorako bere mendi latz eta ibareren zabalera chikiagaitik, emaeutzasan, aren ordean, baso orritzubak eta alde guztietarik erreka balio andikoak, ez etorri ugaria dabelako ez bada asko diralako.

Bere mendi buru eta alboetan ipiñizituzan zenbatetzu marmol eta nabarri ach gostatzumatzuak eta menasta bersake meatz aberatzak. Onen artean irazagugarrienak dira Bizkaiko Triano mendiko burdiñ meatzak, urrutikoren anchinaeratik ezagututendiranak eta zeintzuk

(1) Trabajo premiado con *mención honorífica* en los Juegos florales celebrados en esta ciudad en 1894.

gaitik Plinio Erromako kondairaleak esateeban aĩn ugariak zirala ze ez ziriala egundo agortuko.

Lur onen ganean ereñisitusan gizon ekingotuzaleak, biargiñak eta biarrerako bere barrenean gordetandaben burdiña lako gogorrek, sortizkoi erikikoak eta euroren eginduretan iraunpendunak.

Bere biztanlearen doien oneri eskerrak, erri au elduzan danok eza-gutu deutzagun ondasuna eukitera eta aukertuleiteke beste dierriko aldirien modelentzat.

Onako gizonentzat eziñ gelditu leiteken desprestatura euroren meazen balioa eta neguko illak, nai eta ez kanpoko biarrak gelditzendira-nean, artatzezituben duikinde oneri eta bere biarrean jarduteeben.

Lenengo aldian izan zan duikinde guztiz antzik gabea eta urgitu-tentzan mea erode chikitan urtutzero eurorentzat, usubearrak egiteko, baña meak ongarrituteko ekirauak obetanduzitubesanean, ikasieben euroren erreketako uramildeak gayonduten erabilltaritzat eta orduban egin zituben olak eta zabaldueben mundutik euroren banernearen merkarioa onek beti izanda onesbedatubak.

Burdiñ egite onetarik bejeistu ziran beste duikinde batzuk; euroren artean izan zan irazagugarria eta zabalduzan lenengo Beljikan eta gero Asturiasen suarma egintza, giputz ekinartariak erondeak ara eramanda. Ondiño egiten dira guztiz garma onak Eibar eta Plasenzian, zerbait Ermuan. Beste lanera baten biar asko egitenda Ochandio, Ubidea, Aramayona, Eskoriaza, Arechabaleta eta Mondragonen perra, ultze eta sarralla morrullu egintzan.

Gichi gora bera jakiteko nolako andia izatera elduzan euskal-errian duikinde au, aski da ikustea zenbat ola izan ziran eta euroren baner-neak.¹

URTEAK	ALDIRIAK	ZENBAT OLA	BANERNE KINTALAK
1535	Naparroa	26	16.000
1861	Gipuzkoa	29 (87 urlankay)	22.746
1813	Araba	15	9.000
1784	Bizkaya	141	90.000
		Guztitan.	137.746
		edo gaztelako eun librako kintaletan	213.706,30 seintrak
		azkenengo denboran zaldu ziran zenbatean balioeben	256.447,56 errial,

(1) Lenengo iru erresketako barriak emandeustez On Rafael Gaztelu, Iruñako erkautubak Yanguas eta Mirandaren liburutik artuta, On Juan Logendio Estensoro

Ikusidaigun orain olak zer ziran. Edozeiñ erreka edo uramilde bat prestatu leikenean jaikiziran lurraren jaubeagaitik olak eta euren ondoan, uraren indar guztia etontzeko, errotak.

Bata eta besteari kontu egiteko, ze bazekien norberak. ikusita berra geitutendala, egieben eurontzat eche bizitza.

Onela ola dan leku geyenetan ikustendira iru ekida; ola, errota eta olajaunaren echea.

Ola izaten zan ekida aurkartez bat ogetaamarbat kana luze albo-guztietatik zitubana. Barrutik egoan ormabatekin erdibituta. Erdi batean ziran sartzera, ikatzgela, gizategia, gizonen lo gela edo isilluba eta zertegi bat. Beste erdia bere zan erdibituta; alderdi batean egozan sutegi edo arragooia, chungurrea, gabia eta au erabillteko tikiñoa edo burpill urlankaya.

Beste aldean ausputegia eta beste zertegi bat, nun pisatuta gero eta zaldu arte gordetanzan egitenzan burdiña.

Baziran ola banakabatzuk burpill oi eta sutegi bi zitubesanak baña geyenak ziran burpill bakardunak.

Olan ziran gauzarik lenendikoak ziran Tikinoe edo Burpill urlankaya, Gabia eta Sutegia.

Urlankaya zan burpill bat, seiñ da besagak luzetuta balenkaz beze-la olchubatzukin bollesituba: olchu onek ziran tikiñak eta origaitik esatenjakon tikiñoia.

Burpill au egoan olako orman ardatz batekin katigatu ta, bere gamera jaustenzan ura uagaz chinboaren atiska edekiten zanean; jira eginda, tikinak ikututeeben gabia eta jirako indarrakin jasoteeben. Tikiñ bakocha iragotenzanean emateeban gabiak kolpe bat.

Gabia zan burdiñezko mallo andia; bazitusan zortzi edo amar kintal. Bere kirtena izatenzan abe andibat, pagoa edo arecha, lurrean zartuta egosan zutoieren artean katigatuta. Kirten onen buru batean egoan malloa tinkatuta, beste buruban egiteeben ikutuba tikiñoiaren tikinak. Malloaren azpi azpian zan chungurrea.

Sutegia zan mea urtuteko laba. Au egitenzan beti lurrean olako

Gipuzkoa-ko mikeleteren agintariak, On Eliodoro Ramirez Olano, Arabako Erkauteko goarpelak eta On Anastasio Goiri Bizkaiko Erkauteko gordairuzañak Iturrizaren Bizkaiko kondairatik artuta, Banerrenen barriak dira, Gipuzkoakoak Logendio jaunak emonak, besteak neuk Andonaegi olak ledanbatueren ganera kontubak eginda

ormabaten ondoan baña ormari ikutu gabe. Egitenzan zulo aukartez bat: bustitasuna kentzeko ipiñtenzan ondoan arlosa, onen ganean lau edo sei atz inguru zepa zeetuba eta arlosa barriro au estaltzeko. Azkenengo arlosa au egoan apur bat zakondotua.

Ol orma ondoan egitenzan beste ormacho bat eta oneri bere aurea estaltzenjakon, tobera zulora arte, tobera plancha esatenjakuen burdiña butzukin bata bestearen ganean tolastuta: andik gora bustiña-rekin.

Onen eskumatara, berari begira gariala, ekidatutenzan chokoskian beste ormacho bat, arri eta kare utsagaz, kanabete inguru luzeerakoa lurraren ondoan, goitik laburchuagoa Beronen ondotik eta lelengo esanaren aurean egitenzan burdiñ okertuekin orma utztaizin bat, utsuna barruko alderutz ebalá.

Zuloaren laugarren alboá sarratutenzan gora bera egiteko erara jartzenzan arlosa edo burdiñ chapa zabal batekin. Alde au loka istea zan andik urteera emateko zepageyari. Aldeoneri esatenjakon biarzuloa,

Ziarzulo eta lelengo aitatuko ormachóaren ertzetik sartzenzan sute-gira, bere utsunaren goyenda erdirutz, tobera edo auspu musturra.

Sutegiak ez eban ketoki ez lutsa biderik eta keiak urteteaban tellatuban orretarako prestatuta egoan zulo batetik.

Auspuak ziran ausputegian: arek bere urak erabillten zitusan.

Ola eche aldea zer zan jakinda esandaigun zelan biar egitenzan, zenbat ziran lanariakedo ola gizonak eta euroren izanak, ze oiñ eskerro ia aztudira, zer jateeben eta eurori eta olajaunari duikinde onek emateutzen irabastea. Oñek ziran gure erriko biar egiteko ganoraren gauza argarrikoak eta origaitik ustedot oroitu biar dirala.

RAFAEL MURGA TA MURGATEGI-K.

(Bukatuko da)



OLAK



(BUKAERA)

Urril eta Azaroillean egitenzan ikatz eta zukois zuzkidura olajaunaren basoetarik ekarrita eta naikua ez bazan beste batzuri erosita, baita ekartenzan egingo ziran barnenetarako biarzan mea, urte batetik besterako berba eginda egozan lanariak kontuba aterata.

Orrek lanariak ziran burpill bakardun oletan:

Itzel bat (Naparroan eta bere inguruban esateutzen Arotza): au zan olako artezaria. Bere zeregiña zan arragoiya ateratzen lagundu, eraman gabi azpira eta aren kolpe eta eskuban eukan mallukeaz lagunduta ijestu edo irundu.

Urtzalle bi: onek, euroren izanak esatendaben legez, ziran mea urtuteebenak. Itzelari lagunduteutzen burdiña irunduten.

Gatz emalle bi: bat zan bertiraungoa eta bestea eraldietarako. Onen bearra zan mea chikitu eta arragoera eraman, chinboaren atiska edegi, gichi edo asko (nola esateutzan itzelak, biarrean jarduteebanean) gabia geldika edo ariñ erabilteko, eta, orren ganera bere ardura zan bazkariak prestatutea eta agertzen ziran gogadiakegitea.

Bazkaria zan beti bada lapiko koipatzu bat, zeziñ urdayaz edo gantzagaz egiña, ona jateko, eta ogia. Edaritzat ura; nosbaitean ardoa.

Azaroaren azkenengo egunetan erostenzan zeziñ-idi bat, ogeta lau erralde ingurukoa, ill eta arkaitutenzan eta bialtzenjakozan, doaichoz, solomoa eta guntzunak olajaunari, zeñek eramateutzazan gizonari emateutzan iru pesetako saria. Denbora onetan erostenziran anega bi gatz anega bat eta erdi baba eta gantza. Zeziñidiaren kostuba izatenzan milla errial inguru, babak irurogeta lau errial anega eta gatza eme-

retzi: gantza ez dakit zenbat zan baña bere kostuba berrogeta amar errial. Gero esangodot nundik artudodazan barri onek.

Ekilenok aramastutean etortzen Abendubaren lelengo eguna; mea ordurako erreta egoan, alogerako gizonakgaitik eta olagizonak euroren kapelazar, orkatillara eltzenziran kirusko alkondarak eta orpoan sartubako zapatuk jantzita atzenziran biarrean Mayetzaren azke-neraño.

Biarra gelditzenzan zapatuko gaberdian domeka gabera arte.

Burdiñ giña jardute ebeneko irebazia izaten zan: itzelak errial bi egiteeben kintal bakochagaitik eta atzenean seireun eta berrogei erri-aleko saria: urtzalleak errial bi kintalean eta eun eta irurogeiko saria. Gatz emalleak: bertiraungoak iru errial egunean eta berrogei saria, besteak iru errial biarzanean, eta, bata eta bestearen jatekoa izatenzan ola-jaunaren kontura. Itzelak eta urtzalleak taldika pagatuteeben jateebena.

Machuretan biar egiteebenean irebazteeben itzelak eta urtzalleak zortzi errial egunean: gatz emalleak sei.

Ledanbatuteeben burdiña iru orkoi banaitan zenetarik bireri esautzen erderazko izenakin *palanquilla* eta *plancha*, besteari atalak.

Zapatu arratsaldetan pisatzenziran asteko banerneak; obraerael-dikaskoa olajaun eta itzel-urtzallerentzat zergaitik lelengoak jakiteeban zer eukan zalduteko eta bigarrenak euroren irebazia. Orkoi bakocha pisatutenzan bestearekin nastatugabe.

Ez zan oardeitzalle gichierna pisatzeko moduba. Pisagarri gichi izatenzituben eta origaitik eraman biareben kontu etzaikidatu bat pisaldi bakochean ze batak ematen baeban kintal bi eta mallukearen pisuba, urrengoak zituzan kintal bi orrikak gichiago eta besteak iru eta orrikak baña malloa gichiago. Obraera au zanean, eta bardiñ erosleari emoteko pisatzenzanean, olajaunak menekiatuten zituzan ardo eta ogiarekin olagizonak zeintzuk eramateeben kontu biargiroa barnenetu eta zaldubaren ganera, eta itzkiribietan ez jakinda isentetan zitubezan euroten kontubak zotzchubaten kanibetagaz ostalluak eginda eta orrela egiteeben mutadi danok diszistalzeeben bat.

Irurindarra zan olak gabaz egiteeban ardorea gure erreKaren konka estubak argituten zituezanean euroren ate eta orma zuloetarik igeste eban argidair gorriskagaz, zeñek noizik beiñean ikusi eraite eban gatz emallea, bere alkondara andia jantzita, urteteebanean me zumeska baten eske, eta gure mendiaren isillera artausten gabiaren gelditubako otsekin milla bider oyarzunak barristuak.

Ez zan irurindar gichiago olaren barruba, dana suak argituta eta onen ondoan zutunik arragoia beatzuten chandaz egoan urtzallea, alboko gelan beste urtzalle eta itzelak lo egiteeben artean ardurarik egingabe uramildeko ots gorrariari.

Eziñ leiteken leku aretan berbarik egin, ez zan ezer entzuten, baña biargiñak aiñ eginda egozan zarata aretara ze urtzaellak, ezagututeebanean arragoa prest zala, egiteeban chistu eta bertatik etortenziran lo egozanak atera eta gabi neurkaisa ibilli erainda ledanbatutera. Gesi onetan argidaira zan andiagoo, toki dana chinportaz betetanzan eta gizon guztiak biarrean jardunda emateutzen olari bi kolpe arzulo baten antza.

Au zan quadro miragarri bat, aldika ondiño gauloratuba andrak gorulara baizen ziranean, eta merezi leukana euskaldun antzeskin bateg berekin bere antzeskayak katigututzea.

Lenaria zan bear egiteko astura eta gichi zitubezan burdiñ lankayak (orrika, mallo, burdiñ-aga, kaiku, galbae eta besteren bat) baña elarte gichi izan arren euroren indar eta duiaz ezkuztatute eben agoia lumazkoa balitz legez eta gabiaren kolpe bakochean jira eginda emateutzen naieben orkoia eta irundubak eukanean bear zan luzera, sei oiñ inguru, ipintzeeben bere ganean, ertzez jarrita, mallukea eta gabiak egitzenan epaia.

Onela eta urte bat besteagaz eltzen ziran eraldean seireun kintal ekidatutera.

Kontubak ondo ateratzeko jakin biarda oletako kintala ez zala Gaztelako eun librakoa ez bada eun eta berrogeta amabost librakoa kintal zarra.¹

Ikusi daigusan orain desziskute eta irabaziak.

DESZISKUTEAK

ERRIALAK

Mea. 2.000 kintal 3 3/4 errial bakocha olondoan	7.500
Ikatz. Seiña zorroko 1.000 burdi 35 errial bako- cha, arere	35.000
Mukurrak. 60 burdi, 40 errial bakocha, arere	2.400
Machurak	3.000
Itzel-Urtzalleak kintal bakochean eukenagaitik	3.600

(1) On Eliodoro Ramirez Olano, Arabako goarpelak, esaten deust Llaudio eta Aramyonan zala usuaurra kintal zarra eta beste erri guztietan Gaztelakoa.

	<u>ERRIALAK</u>	
Alogerak	670	
Sariak	1.040	
Zeriñ-idea, ardoa, gatzemallaren jana eta beste kastu chikiak	1.824	55.034

ZISKUTETUBA

Burdiña: olan zalduta, 600 kintal, bata bestia gaz 120 errial bacocho.	72.000
Irabasia	16.966
Orretarik kentzen badoguz ola eta bere aldamenekoaren erren- tagaitik.	<u>3.000</u>
Gelditzen da irabazte garbitzat	13.966

Orra zer ziran gure olak.

Kontakida au da Andonaegi olako (Berriatu-Bizkaya) 1857, 1858, 1859 eta 1860-garren urtetako kontubaren erdiska, baña lenago, oraingo burdiñ-olañdiak arriikatzaikiñ dabiltzasanak ez ziranean, kontres-talgorik gabe, irebaziak izan biar ziran aundiagoak.

Barri geyago emateku ezarriko dot zapatu eta beste pisu egunetan edan zan ardoaren kostuba eta zegan erosten zan.

Zapatuetan edana kostatu zan irureun eta larogeta amar errial, beste egunetakoa larogei; guztitan laureun eta irurogeta amar eta zalduten zan berrogei laukon pichera.

RAFAEL MURGA TA MUGARTEGI-K.

